

6 IZAN UKAN LEHENALDIAN IV

Jarri falta diren aditzak.

GEZURRETAN

Patxi: Irene, atzo tailerrera joan ZINEN ?

Irene: Bai.

Patxi: Eta han utzi _____ kotxea?

Irene: Bai, lehen ere esan dizut baietz.

Patxi: Zer ordutan joan _____ ?

Irene: Ez dakit ziur, azken orduan...Lehenengo banketxetik dirua atera

_____. Gero argazki-dendan sartu _____ karreteak eroatera...

Patxi: Eta kotxea konponduta dago?

Irene: Ez, aberia handia dauka eta tailerrean egongo da egun pare batean.

Patxi: A, bai, egun pare batean! Ja! Gezurti hori!

Ez _____ kotxea eraman eta!

Irene: Nola ezetz Jon?

Patxi: Atzo gauean gaizki aparkatu _____ eta gaur goizean

gruak eraman du gure kotxea! Esan, zer egin _____ atzo?



Irene: Atzo... dirua atera _____ eta Iñakirekin zinemara

joan _____.

Patxi: Alproja hori! Berriz ere atera beharko duzu dirua, gruarena ordaintzeko!

Irene: Bai, noski...

Jarri esaldiak lehenaldian. Idatzi aditza bakarrik.

1.- Nik betaurrekoak behar ditut. _____

2.- Zuk paperak nahi dituzu. _____

3.- Ehiztari honek bi otso hil ditu. _____

4.- Guk argazki egokiak ateratzen ditugu. _____

5.- Zuek berehala amaitu dituzue lanak. _____

6.- Lapurrek gauza asko eraman dituzte. _____

7.- Guk ontziak garbitu ditugu. _____

8.- Zuk egurrak ekarri dituzu. _____

9.- Gurasoek umeak jantzi dituzte. _____

10.- Neskak dantza berriak ikasi ditu. _____

11.- Nik ez ditut harri horiek bota. _____

12.- Zuek loreak jarri dituzue leihoan. _____